

KOMUNIKABIDEAK ▶

Eskualdeari hitza, egunero

Otsailaren erdialdera sortuko da UROLA-KOSTAKO HITZA euskarazko egunkaria, aldizkarien euskara elkarte, gizarte eragileen eta Bertako Hedabideen artean



UROLA-KOSTAKO HITZAREN sustatzaileak, hilaren hasieran, Zestoan bilduta. Makina bat batzar egin dituzte proiektua gauzatzeko. MARGARI EIZAGIRRE

GARI BERASALUZE

Urola-Kostak laster izango du euskarazko bere egunkaria —UROLA-KOSTAKO HITZA—, aste gutxira sortuko delako. 11 herrietako informazioa emango du, egunero —astelehenetan izan ezik—. Euskarazko prentsan herri informazioan dagoen hutsunea beteko du; zazpi aldizkari daude eta otsailaren erdialdetik egunkari bat ere edukiko du. Sustatzaileak aurki hasiko dira herrietan aurkezten.

Euskal Herrian beste hiru HITZA daude —Tolosaldean, Oarsoaldean, eta Lea-Artibai eta Mutrikun— eta haietan bezala, eskualdeko herri aldizkarien euskara elkarte, Euskarazko Komunikazio Taldeko Bertako Hedabideen eta Urola-Kostako eragileen artean sortuko da HITZA. Elkarte artean, Txaparro (Zarauztz), Uztarrria (Azpeitia), Baleike (Zumaia), Danbolinzulo (Zestoa) eta Artzape (Getaria) sartu dira. Maxixatzen (Azkoitia) eta Karkara (Orio-Aia) ez, beren arrazoiengatik; herrietan HITZAREN taldeak sortu dira.

Gizarte eragileek osatuko dute enpresako hirugarren hanka, eta dagoeneko hauek animatu dira: Zarauztik Oteiza Lizeo Politeknikoa, Lizardi Institutua, Zarauzko AEK eta Alproja Kultur Taldea, Azpeititik Lagun Onak Mendi Bazkuna, Karmelo Etxegarai Ikastola, Urola Ikastola eta Ikasberri Azpeitiko Ikastola, Zestoatik Erralla Bertso Eskola, eta Oriotik Orioko Herri Ikastola. Dena dela, HITZAREN alde dagoen edozein elkarrek, ikastetxe, enpresak... izango du hurrengo asteetan parte hartzeko aukera. Horretarako, eragileek kultur elkartea sortu dute, eta hor egoteko bakoitzak, behin, gutxienez 150 euroko partaidetza erosi behar du.

Zarotik udalei azaltzen

Gaur irten du 0 zenbakiak, baina HITZAREN sustatzaileak azarotik ari dira udaletan eta alderdi politikoetan egitasmoa zehatz-mehatz azaltzen. Udal bakoitzari urtean biziandeko hiru euroko laguntza eskatu diete. «Proiektu honek hasieratik sustraiak bota behar ditu, eta horretarako egunkari txukuna egin eta herritarrek bere egiteaz gain, eskualdeko udalek laguntza hori eman behar dute, gure ustez».

Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jauriaritzatik laguntza jasoko dela espero dute, beste HITZAK jasetan dutelako.

PROIEKTUA ▶ PLURALA, KALITATEKOA ETA EUSKALTZALEA

Hauek dira UROLA-KOSTAKO HITZAREN proiektuaren ezaugarriak.

OINARRIAK

Euskaltzalea. Euskararen erabileraren aldeko jarrera sustatuko du irakurleen artean.

Plurala eta oreaktua. Urola-Kostan dauden sentsibilitate politiko, sozial, sindikal, erlijioso eta beste edozein motakoak kontuan hartuko dituen jarrera informatiboa edukiko du.

Baterakoaia. Euskararen aldeko indar guztiak biltzeko, indar eta posizio politiko desberdinetakoak elkartzeko saioa egingo da.

Parte-hartzailea. Herrietan gerta litezkeen eztabaidetan herritarren parte-hartzea

bultzatuko du: iritzien, gutunen, argazki-inkestaren... bidez.

Independentea. Bere lana eta funtzioa ahal den ondoen betetzeko, HITZA independentea izango da alderdi politikoetatik, instituzioetatik eta erdarazko komunikabideetatik.

Konprometua eta profesionala. Euskarazko komunikabide bat aurrera ateratzeko konpromisoa eskatzen du, euskara ez dagoelako oraindik egoera normalizatuan. Baina profesionaltasuna ere eskatzen du proiektu honek. Azken batean, langile profesional konprometituak behar dira.

KAZETAL IRIZPIDEAK ETA BESTE

Interesgarria eta kalitatekoa. Herritarrek ez dute HITZA hartu

behar euskaraz delako soilik, inguruko berri gehien, ondoen eta azkarren ematen duelako baizik.

Deigarria eta erakargarria. Horrelakoa izango da edukaren aurkezpena.

Euskara irakurterrazia. Kerezal hizkuntza ereduak errazta izan behar du.

Urola-Kostakoa. 11 herrietako berri emango da (Orio, Aia, Zarauztz, Getaria, Zumaia, Aizarnazabal, Zestoa, Errezil, Azpeitia, Beizama eta Azkoitia), egunero (astelehenetan izan ezik).

Etxean jasoko da. Eskatzen dutenek buzoian jasoko dute egunkaria, egunero.

HELBURUAK

Eskualdeko komunikabideak osatu. Helburu nagusia hauxe

da: euskararen normalizazio bidean, Urola-Kosta mailako komunikabideak osatzea; lehen produktua izango da HITZA egunkaria.

Euskara lagundu. Euskara, euskararen inguruko mugimenduak eta euskaltzaleasuna sustatzea eta laguntzea.

Normalizazioa. Urola-Kostan euskararen normalizazioa eta garapena lortzeko baliagarri izatea.

Elkar ezagutza. Herrietako eta Euskal Herriko euskarazko komunikabideen artean elkar ezagutza handiagoa lortzea da beste helburu bat, eta guztien artean erakunde bakar sendoa sortzea.

Erreferentzialtasuna. Eskualdean euskarazko hedabideek informazioaren erreferentzialtasuna lortzea.